

ERLIJIOA. 'Fedea, Eliza eta gazteak' izenburuko jardunaldiak amaituko dira gaur Gasteizko Apezetxean

Felix Placer: «Elizak isildu behar du eta gazteei entzun»

Javier Elzok ohartarazi du gazteriaren erlijio gizarteratzea krisian dagoela «bete-bete»

Luis Karlos Garcia | GASTEIZ


Azterlan soziologikoek ez dute zalantza izpirik uzten: 1989. urtean, gazteetako %16k uste zuten Elizak gauza interesgarriak esaten zituela bizitzari buruz, baina, hamar urteren buruan, hala ziotenak ez ziren iristen %3ra. Datuok Javier Elzok eskaini zituen atzo, Gasteizko Teologia Fakultatean egin jardunaldietan.

Gazteen eta erlijioaren arteko urruntzea erabatekoa den honetan, Felix Placer Ugarte apaiz arabarrak hainbat elkarriketa egin zituen gazteekin. Hainbat tokitako gazteak hautatu zituen solasaldietarako: Gasteizko

Gaztetxekoak, EHUko kanpusekoak, Zaramaga auzokoak, Araiakoak (Araba)... «Batzuk kritikoak dira Elizarekin eta beste zenbait bost axola zaie, baina gehienentzat arrotza da, eurekin batere zerikusirik ez balu bezala», azaldu zion atzo hedabide honi, mintegia hasi ondotik.

«Elizak hartu behar du mugitzeko ekimena»

Placerren irudiko, Elizak auziari zuzen heldu beharko lioke, urruntzea saihestu nahi izanez gero: «Elizak egin behar duen aurreneko gauza isiltzea da, eta gazteek diotena entzutea». Orain dela hamarkada batzuk



Felix Placerrek atzo Gasteizko jardunaldietan emandako hitzaldiaren une bat.

Eliza zenbait gazte mugimenduren barnean zegoen arren, gaur egun «haustura» nagusi dela uste du. «Lokarriak hautsi egin dira. Berez, ez du Elizak hori egin, gazteek beraiek bai», zehaztu du.

Arabako apaizak adierazi zuen Elizak ezinbesteko duela eredua aldatzea, «indarrean dagoenak gazteen gaitzespena sortzen baitu». Hortaz, Placerren aburuz, bistakoa da galdera: «Noraino aldatzeko prest da Eliza?». Aitzitik, gazteria noiz aldatuko zain geldituz gero, Elizak «jai» daukala uste du: «Elizak mugitu egin behar du, gazteek, argi eta

FELIX PLACER UGARTE

Apaiza eta Teologiako irakaslea

«Elizak ezinbestekoa du eredua aldatzea, indarrean dagoenak gazteen gaitzespena sortzen baitu»

garbi, ez dutelako ekimena hartuko».

Alabaina, Placerrek ez du uste Eliza aldaketaren aldeko norabidean dabilenik, Elizaren hierarkia «nekez» sartzen baita

horrelako prozesuetan. «Sartu egin beharra du, ordea, gakoa ez baita egituraren iraunbizitza, gizarteri laguntzea baizik».

Familiak huts egin du erlijioaren gizarteratzean

Deustuko Unibertsitateko irakasle Javier Elzok bigarren saioan ere ohartarazi zuenez, gazteen erlijio gizarteratzea bete-bete dago krisian». Gainera, familiari egotzi zion erlijio baloreen igortzean huts egin izana.

«Erlijiotasuna ekintza zahar-kitutzat hartzen da gaur egun, pribatasuneko, besterik ez».

ESPETXEAK. Gendulain eta Muruzabal dira hautatu dituzten udalerriak

Nafarroako Gobernuak datozen egunetan erabakiko du presondegi berriaren kokalekua

Erredakzioa | IRUÑEA

Nafarroako Lurraldearen Antolamendua Departamentuak datozen egunetan erabakiko du presondegi berriaren kokalekua, bi tokiren artean beti ere: Gendulain eta Muruzabal. Atzo Gobernuak presidenteorde Rafael Gurreak adierazi zuenez, bi inguruak baldintza guztiak betetzen dituzte, baina Muruzabalgok aukera gehiago ditu.

Hamar egun gehienez: epe hori dauka Departamentuak, hamaika kokapen baztertuta, presondegirako behin betiko ingurua erabakitzeko. Gobernuak, azkenean, Erreniega inguruko bi herri hautatu ditu, baina Muruzabalgok du aukera gehien, atzo bertan Gurreak baieztatu zuenez. «Gendulain

nek etorkizunean izan lezake arazorik. Espetxea 50 urterako egingo da, eta denbora horretan Iruñerriko hazkundera bera honuntza zabal liteke, Iruñea-Lizarra autobiaren eraginez».

Presidenteordearen esanetan, beraz, espetxearen 200.000 metro koadroko zabalerak «oztopo» izan liteke hazkunde horretarako.

Duela hilabete, Muruzabalgok alkatearekin elkarriketa

Aurizko dermioa, Muruzabal eta Adiosen artean, hiriburutik urrunago dago, eta hori du kontra. Nolanahi ere, Gobernuak azken herri hau hautatuko duela ematen du, eta Gurreak duela hilabete eman zion berria bertako alkate Alberto Azparreni. «Leialtasunarengatik ohartara-

zi genion». Espetxea inguruan eraiki zitekeen berria jaso eta berehala, alkateek euren harri-dura agertu zuten, eta Muruzabalgok berak azpimarratu zuen berria «ustekabea» izan zela beretzat eta udalean lan egiten duten gainontzeko zinegotziendako.

Gurreak adierazi zuen, ordea, berria jakinarazi ziotenean Azparrenek ez zuela inolako erre-akzio berezirik agertu, «ez gogo handirik, ez eta kontrako jarrera tinkorik ere».

Bi toki hauek baino lehen, Nafarroako Gobernuak Artederretako ingurua aztertu zuen presondegirako, baina azkenean baztertu egin behar izan zuen, besteak beste herri bate-tik behar bezain urrun ez egote-agatik.

